

# Animalion elikadura Nor naiz?

Saioa Alkaiza Guallar



Plaktona antxoak, antxoa hegaluzeak, hegaluzea gizakiak, gizakia krokodiloak...  
Ea asmatzen dugun, elikatzeko moduagatik, zein animalia ageri den bertso bakoitzean!

***Doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak***  
**Zortziko handia**

Altua, beltza, gihartsua naiz  
Afrika **ingurunean**  
ibiltzen dena frutak, haziak...  
biltzen **askatasunean**.  
Zuhaitz-azalak eta sustraiak  
gutizi nire **xumean**.  
Nekatu gabe irents ditzaket  
20 kilo **egunean!**

Hori-gorrixka, lumadi erdia,  
berde-argitsu, **kopeta**.  
Alpiste zale hitzontzia naiz  
agindu ohi dut, **tarteka**:  
“Plater txiki bat ekar ezazu  
ahal dela pipaz **beteta**  
ahots eder hau jaki onekin  
zaindu beharko dut **eta**”.

Ilaje grisez, zuhaitz gaineko  
adarretan **akrobata**.  
Urik sekula ez dut edaten  
eukaliptotik **tiraka...**  
Eta ahaztu zait lehen esatea  
gaineratzen dut **post data**:  
gure kumeek handi egiteko  
jaten dute gure **kaka!**

Zuria edo beltza nauzue  
maite dut mendi-**magala**  
talde handiak dira niretzat  
ingurune **naturala!**  
Belarjalea, ez dut izaten  
liseriketa **makala**:  
nire barnean lau urdail daude  
behien barnean **bezala!**

Gari, artoa zein garagarra  
irensteko bi **minutu!**  
Zizareren bat jaten dut, noski  
nahiz horrekin ez **itsutu**.  
Eta behin tripa bete ostean  
ez gara geratzen **mutu**:  
guk kakaraka egiten dugu  
eta oilarrek **kukurruku!**

20 bat egun bizi naiteke.  
Kaka non, orduan **gu han**.  
Usteldutako fruta jaten dut  
biziraute **helburuan**  
zaborra ere elikagaia  
da gure zikin **munduan**  
agian orain hegaka nabil  
zure buru **inguruan!**

Batzuk: smoothie eta McFlurry  
horrek ze plastiko **kutsu!**  
Beste batzuek: lekale, arraultz,  
edo barazkiak **usu**.  
Plater ertzean jartzen duzunak  
definituko **zaitu zu**.  
Bal al dakizu zein ote naizen?  
Ongi ezagutzen **nauzu!**